

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Bizigune programaren hitzarmena /08

HIRIGINTZA

Santa Ana proiektuan aldaketak /09

LEINTZ GATZAGA

Arazoak KZ Gunean /10

TRANBIA ARETXABALETAN

IKUSGAI DAGO PROIEKTUA UDALETXEAN



ELKARRIZKETA: **XABIER ORMAETXEA/5** • KIROLAK: **FELIX RECIO ENTRENATZAILEA/6**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 26
FRAILE. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 27
FRAILE. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

OLIO BATZEA
Sukaldean erabilitako olioak batuko dituzte astelehen goizean, hilak 28, azoka egiten den gunean.

KZ GUNEKO IKASTAROKAK
Hainbat ikastaro antolatuta ditu KZ Guneak martxora-ko. Izena emateko edo argibide gehiago gura izanez gero deitu bertara arratsaldetan: 943 79 94 44.

ANTZERKI ASTEA
Antzerki Astea egingo dute Kurtzebarri eskolan otsailaren 28tik martxoaren 2ra bitartean. Eskolan landutakoa ikaskideei eta gurasoei erakusteko hainbat emanaldi egingo dituzte. Gurasoendakoak 18:00etan izango dira.

ERROLDA IKUSGAI
Errolda egongo da kontsultatzeko otsailaren 28tik martxoaren 4ra bitartean. Udal idazkariarengana joan behar da.

TRANBIAREN GAINEKO PROIEKTUA IKUSGAI
Tranbiaren erakusketa dago ikusgai udaletxeko ganbaran, 09:00etatik 20:00etara.

IGERIKETA IKASTAROA
Martxoan igeriketa ikastaroak hasiko dituzte umeendako. Izena emateko kirol etxera deitu 943 71 26 28.

LORAMENDIREN AGENDA

EMAKUMEAK EUSKAL MITOLOGIAN, HITZALDIA
Emakumeek euskal mitologiaren gainean egingo du berba Anuntxi Aranek, martxoaren 3an, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

KORRIKA LAGUNTZAILEA
Korrika laguntzailea izan gura duena Loramendi EEtik pasatu dadila. 12 euroren truke edozein izan daiteke.

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN



Neskek jokatu zuten lehen partidua futbol zelai berrian

UDAko neskek izan ziren berri-tutako Ibarra futbol zelaiaren jokatzen lehenengoak; 1995eko otsai-laren 26an hain zuzen. Bergararren aurka jokatu zuten, eta 3-1 irabazi zieten.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


“Perratzaille”



— Osintxuko perratzailliakin egon naiz.

JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA



ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN

K. Uribe, M. Urdangarin, R. Rueda, B. Mendizabal eta M. Valverde
Gaztelupeko Hotsak, 2003

2003ko martxoan joan ziren New Yorkera bost lagun hauek poesia eta musika emanaldia eskaintzera. Gero Euskal Herrian ere aritu dira eta poesia disko-liburu hau atera dute. Orain New Yorkeko Bowery Poetry Clubekoek 10 poesia disko onenen artean seigarren postuan jarri dute.

Liburuaren formatua du 14 poema eta abesti biltzen dituen disko honek eta letrak euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez datoz, Mikel Valverderen irudi bikainen lagunduta.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

JAUSORO OSTATUA


Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Tranbia, bai ala ez? Aretxabaletan eukiko dauen ibilbidie gustetan jatzu?



PEDRO MARI ZUBIZARRETA
Jubilau



ALONSO ASENSIO
Langillie



JOSE RAMON PRIETO
Langillie



CATI FABIAN
Langillie



MARI KARMEN BURGOS
Jubilau



MERTXE BENGOA
Jubilau

Bai, hasiera baten ondo pentsetan jat. Nundik fan biher dan? Ez dittut detalliek larrei ezauketan, baiñe erdiko kaletik tranbia bat gora eta bestie bera ibiltie... Rarue behintzet bai.

Ez, iñolaz be ez. Ibilbidie ez da bape egokixe. Gaiñera, bi eta hiru urte artien kaliek hankaz gora egongo die. Errekaz beste aldien etxiek egin biher badittue handik jarri daixiela.


Bai, gaztiendako oso ondo etorriko da, baiñe oingo ibilbidetik ez. Gehitxuau pentsau daixiela; erreka ostien ez dittue ba etxiek egin biher? Linea bat behintzet handik jarri daixiela.

Ez dakit ba... Herri erdittik pasetie ez jat askorik gustetan. Gure herrixen beste ibilbide bat topau biherko leukie; izen be, Durana eta Mitarte kaliek besterik ez daukou trankil ibiltteko.

Bai, baiñe pentsau dauen ibilbidie ez dakit onerako edo okerrerako izengo dan. Herrixe hankaz gora geratuko dala uste dot, eta hoba daue alde zarra errespetau eta beste ibilbide bat topau.

Bai, neri gustetan jat, hola aukera gehixau eukiko dou. Oin, Durana eta Mitartetik pasetiekin ez nau konforme; dana egoten da bertan, eta gero ez dou jairik be eukiko. Erreka ostetik fan daille.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK ESPALOIETAKO JAITSIERAK Zaraia eta Aralar kale inguruetan ur hodiak aldatzen ibili dira oraintsu. Luze iraun dute sa-neamendu lanok, eta lan guztiak ez dituzte behar bezala egin. Apur-tutako espaloiak berritzaera, baina, jaitsierak egin dizkiete. Lehen, hala moduz ibili behar zuten gurgildun aulkian zihoazenek edo umeen aulkiak zeramatzenek; orain, ederto jaisten dira. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Xabier Ormaetxea

Zapatuan hasi zu-ten Arabako Bertsolari Txapelke-ta, eta Xabier Ormaetxea epai-mahaiko kidea da.

ASTEAN BEHIN /05

Fernanda Hercek 100 urte

Gasteizen bizi-arren emakume ezaguna da Fernanda herrian. Domekan 100 urte bete zituen.

KIROLAK /06

Elkarrizketa: Felix Recio

UDAKo preferen-teko taldeko entrenatzailea aldatu egin dute. Felix Recio da berria.

ASTEKODATUA

1.823

HERRITARREK EMAN ZUTEN BOTOA DOMEKAN

Europako itunaren gaineko galdeketan 5.258 herritarrek zeukaten botoa emateko eskubidea, baina 1.823k besterik ez zuten eman. 3.435 lagunek etxean gelditzea erabaki zuten, %64,7ak.

BESTEKEKESANA

Gure Himalaya liburuan oinarritutako filma da. 1990 eta 1998 artean Felixek eta biok egindako


espedizioetan jasotako irudiak dira. Iragana aipatzen dut bertan, baina ikuspegi kritikoa erabilia.

Gure Himalaya liburuan jasotako esaldi bat aipatu gura dut: "Hainbeste gailurrek liluratu egiten zaitu, baina era berean, lelotu". Filmean bi sentipen horiek bereiztu gura izan ditut; jakinarazi gura izan ditut zalantzarik egon ez dadin.

Banekien bigarren filma egite-rakoan lehenengoaren itzalak traba egingo zidala. Nahitaezkoa zen, muga oso goian jarri zuen **Hire Himalayak**. Bestalde, esango dut dena ez dela itzala izan; izan ere, **Gure Himalayak** erakutsi dit **Hire Himalaya** aurrean izan dudala uneoro.

ALBERTO IÑURRATEGI
'El Diario Vasco'/05-02-15

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



Oraingoan bai?

Esan dezadan hasi aurretik, ni tranbiaren aldekoa naizela, beste proiektu batzuek ez bezala, bailara honetako arazo handi bati, barne komunikazioare-nari hain zuten irtenbidea eman diezaiokeela uste dudalako.

Horregatik, pozarren hartu nituen orain dela bi urte, 2003ko urtarri-lean garraio kontseilari Alvaro Amanek, Aretxabaletan egini-ko bileran, gai honi buruz eman zizkigun berriak.

Ordura arteko ideiak zehaztu zituen hein handi batean, eta datak eman zizki-gun: Lehen fasearen (Aretxabale-ta-Bergara) lanei 2005eko ha-sieran ekingo zieten, eta 2007ko lehen hiruhilabeterako tranbia martxan egongo zen.

Nire orduko poza kezka bi-hurtzen hasi zen. Emandako epeak betetzen zihoazen, eta inongo mugimendurik ez zen nabari. Lanak hasteko emanda-ko data bertan zegoen eta orain-dik proiekturik ez zuten aurkez-ten. Pentsatu nuen beste behin ere gutaz trufatu zirela, beste

behin ere gurea baino inportan-teagoa den beste norabait joanak zirela gureak be badiren diruok.

Eta horretan nengoela, hara hor berria. Proiektua ikusgai zegoen udaletxean. Ez zegoen (ez geunden) beraz guztiz ahaztuta. Jakina, poza nagusitu zen nitaz.

Nahiz eta atzerapenez (oker ez banago orain 2008-rako aurreikusten dute), bertan zegoen. Ez zen amets hutsa.

Baina garbi dago gure poza ezin dela inoiz erabatekoa izan, eta oraingo ez zen salbuespena.

Nire poza guztiz desa-gertu ez bazen ere, dezente gutxitu zen

konturatu nintzanean aurten, 2003a bezala, hauteskunde urtea dela, eta orain arteko dinamika jarraituz, ez dela agian beste pausorik emango berriz hautes-kundeak bistan izan arte, hau da, 2007a arte.

Proiektu hau bozketak gertu daudenean baino ez berpiztea kasualitatea da? Benetan zerbait egiteko borondatea dago, ala bo-toak batzeko amua baino ez da? Honen usaina hartzen hasia nago, baina erratuko ahal naiz!

"Tranbiaren proiektua bozketak gertu daudenean baino ez berpiztea kasualitatea da? Zerbait egiteko borondatea dago?"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleta
Udala



Eskoriatza
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Tranbia datorrela

Aztoratute gabitz herrixen. Ez dakit edurre izen dan errudune, edo herriko erdiko kalietatik jarri gure duskuen tranbia dontsuoi dan. Nik, zer esango dutzuet ba, neure zalantzak dauzket; jarri bai, hala edo hola jarriko daue, baiñe ibilli egingo ete dou? Automobiliei oso lotute gazelakuen nau, eta mille atxekixa jarri eta ez dou itxi gureko etxien. Atzo ezkeru udaletxien daukie tranbian proiektuoi ikusteko moduen, hortaz, detalliek hobeto jakittek pasau biher naz. Zeueik be jakin gure bozue, badakitze nora fan.

Astelenien telebisioñue ikusten ninguela aretxabaletar bat agertu jaten La2eko *Miradas2* saiuen. Bat Gehio taldeko abeslari xer da bera, bai horixe, **Julen Cobos**. Taldien gaineko erreportaje txiki bat emun euien eta tartien Julen Cobos euen.

Bukaketako Korrika aittetu gure dutzuet. Izen be, politto-politto hurrau daukou fetxie, martxuen 16xe, eta biher dan moduko ongiatorrixe egin biherko dutzou. Untzille aldetik sartuko da gure herrixen, 22:30ek inguru. Loramendi Euskara Elkartien hasitte daz egune gertaketan, hala eta be baten batek parte hartu gure badau etorri besteik ez dauko; herritar guztixei dau zabalik. Gaiñera, Korrika laguntzaillie izeteko aukerie daukotzue 12 euroren truke.



Lehenik Arrasaten jarri zuten tranbiaren gaineko erakusketa, eta orain Aretxabaletan ere badaukagu.

TRANBIA/ Martxoaren 20a arte luzatu du Eusko Jaurlaritzak alegazioak aurkezteko epea

Ikusgai dago udaletxean tranbiaren gaineko proiektua

MIRARI ALTUBE

Atzo, eguena, zabaldu zuten tranbiaren gaineko erakusketa, eta Alvaro Amann sailburua etorri zen aurkezpen ekitaldira. Sei panel, Aretxabaletako planoak eta hainbat argazki daude ikusgai udaletxeko ganbaran. Herritar guztiendako dago zabalik.

Lehenengo, Arrasaten jarri zuten tranbiaren gaineko erakusketa, gero Bergaran, eta orain Aretxabaletara iritsi da. Atzo zabaldu

zuten, eta aurkezpen ekitaldian Arritxu Oliden alkatea eta Alvaro Amann sailburua egon ziren, beste batzuen artean.

PLANOAK ETA ARGAZKIAK

Herritar asko oso kezkatuta dago tranbiaren gaineko proiektuarekin, eta alegazio asko aurkeztu dizkiote. Orain, baina, bertatik bertara ezagutu ahal izango dute proiektua, udaletxeko ganbaran dagoelako ikusgai. Sei panel jarri dituzte, Aretxabaletako planoekin eta tranbien argazkiekin osatuta.

Gogoratu Bergara eta Aretxabaleta arteko zatia izango dela lehenengo egingo dutena, eta Otalora, Durana eta Mitarte kaleetatik eta Araba ibilbidetik pasatuko dela tranbia, orain dagoen proiektuari jarraituta.

Alegazioak aurkezteko epea otsailaren 15ean bukatu zen. Udalek eta herritarrek, baina, epea luzatzeko eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari, eta hilabetez luzatzea erabaki zuen. Hala, martxoaren 20a arte izango dute herritarrek alegazioak aurkezteko aukera.

Fernanda de Andresek 100 urte bete zituen domekan, Gasteizen

M.A

Joan zen domekan, otsailak 27, bete zituen 100 urte Fernanda de Andresek. Emakume txikia, baina oso ezaguna da aretxabaletarren artean. Orain dela urte bi joan zen Gasteizera bizitzera alaba eta suhiarekin.

Fernanda de Andres Martinez Bermeon jaio zen, eta Gasteizen bizi da. Hala ere, urte asko egin zituen Aretxabaletan, eta oso emakume ezaguna zen Ferdinandita. Andramari jai batzuetan, esaterako, zezenak harrapatu zuen. Ea zergatik joan zen zezena zebilen lekura galdetu ziotenean, zera

erantzun zuen: "Ogia eroatera nindoan eta zezena bera etorri da".

Hezurretak mina izaten badu ere, eguraldi ona egiten duenean gurgildun aulkian ateratzen dute kalera, eta burua oraindik ederto dauka. Alaba bi ditu, iloba bi eta lau birloba, eta guztiek batera ospatu zuten urtebetetzea domekan.

LABUR

Zortzi ikastaro antolatu ditu KZ Guneak martxorako


Zortzi ikastaro egingo dituzte martxoan KZ Gunean. Interneko oinarrizko ikastaroa martxoaren 7an hasiko dute eta 18an bukatu. Bestalde, hilaren 1ean, martitzena, *Itsasoan murgil zaitez* eskola emango dute; 3an, eguena, *Via Michelin*ekin bidaiatu; eta hilaren 14an eta 15ean, *Finantza* erak. Hilaren 17an, *Ardoa ezagutu* ikastaroa emango dute, eta 30ean, *Zure egunkaria irakurri*. Bat-bateko mezularitzaren gaineko ikastaroa bi egunean emango dute: martxoaren 31n eta apirilaren 1ean.

Ezezkoak irabazi zuen domekako galdeketa

Bai Aretxabaletan bai Debagoienean ezezkoak irabazi zuen Europako Itunaren gaineko galdeketa. Gure herrian 991 boto izan ziren ezezkoak, 832 baiezkoak eta 38 zuriak. Gainerako herrietan bezalaxe, parte-hartzea ez zen handia izan; hala, %64,7ko abstentzioa izan zen, hau da, 3.435 herritarrek botorik ez ematea erabaki zuten. Debagoienean, 9.880 boto izan ziren ezezkoak, 9.013 baiezkoak eta abstentzioa %63,2 izan zen.

Errolda ikusgai dago astelehenetik egubakoitzera

Otsailaren 28tik martxoaren 4ra bitartean ikusgai egongo da errolda udaletxean. Apirilaren 17an hauteskundeak izango ditugu Euskal Herrian, eta botoa eman ahal izateko norberaren datuak egiaztatu gura dituenak udaletxeko idazkariarengana joan beharko du datorren astean. Hala ere, aipatu, herrian oraintsu erroldatu direnek edo helbidea aldatu berri dutenek lehen erroldatutako tokian eman beharko dutela botoa.



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA


Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA
TEL.: 943 79 86 21

Aretxagazeta

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
AretxabaletaHirusta
JatetxeaIlargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

XABIER ORMAETXEA/ BERTSOLARI TXAPELKETAKO EPAIMAHAIKO KIDEA "Bertsolaritzaren munduak lagunarte bat izaten jarraitzen du Araban"

M.A

Joan zen astean hasi zen Arabako Bertsolari Txapelketa, eta Xabier Ormaetxea epaimahaiko kidea da. Dagoeneko sei urte baino gehiago daramatza epaile lanetan, eta oraindik ere lagun koadrila bat direla dio.

Zela hasi zinen bertsolari txapelketetako epaile?

Arabako bertso eskolaren sortzaileetakoa naiz beste batzuekin batera. Abel Enbeitarengana jo genuen orain dela 23 urte bertsoan erakusteko eskatuz, eta hamar bat lagun elkartu ginen haren inguruan. Lagunarte bat sortu genuen orduan, eta gaur ere lagunarte bat izaten jarraitzen dugu, nahiz eta bertsolaritza poliki-poliki mailatxo hartzen joan. Bertsolari izateko ez genuela balio ikusi genuen, eta txapelketak antolatzen hasi ginen. Epaileak falta zirela, eta halaxe hasi nintzen.

Zein da epaileon lana?

Bertsoa baloratzea eta zenbaki bat jartzea, noski.

Zela baloratzen dituzue?

Araba daukagu parametro hartuta, eta balorazioa ere horren arabera egiten dugu. Bertsoa osatua izan dadila eskatzen diegu: errimak egokiak, potorik egin gabe, ez hanka luze eta ez hanka motz, eta gaiari ondo egokitu bada 6 bat jartzen diogu. Potoren bat badu 4ra jaisten dugu puntua, eta ona bada, berriz, 6tik gora. Epaileok gero bilerak egiten ditugu irizpideak bateratzeko.

Zenbatak osatzen duzue epaimahaia?

Lehenengo kanporaketetan hiruk, finalerdietan lau egoten gara eta finalean ere beste lau. Hori, Arabako kasuan.

Arabako txapelketak badu berezitasunik?

Lagunarte bat garel: bertsozaleak, txapelketaren inguruko antolatzaileak, guztiok. Euskara indartzen joatea eta bide batez bertsolaritza indartzea dugu helburu, eta dagoeneko finalera ailegatzeko direnek badute mailatxo. Finalean bertso saio arinak eta politik ikusten dira azken urteotan.



M.A

"Bertsoa osatua izan dadila eskatzen diegu: errimak egokiak, eta potorik egin gabe"

Gazte asko dabil, ez?

Bai, modan dagoela esan daiteke, denborak esango du hori. Bertsolaritzak, batetik, konektatu egiten du gazteekin, eta bestetik, gura duten guztia esateko aukera ematen die. Muga bakarra norberaren mugak dira, eta gazteek gustuko dute hori. Arabako bertsolaritzan militantzia handia dago, eta lehen esandako moduan oraindik lagunarte bat gara.

Gai jartzaileen lana garrantzitsua da?

"Bertsolaritzak konektatu egiten du gazteekin, eta gura duten guztia esateko aukera ematen die"

Oso garrantzitsua, bertsolaria asko baldintzatzen du. Horretaz arduratzen den komisio bat daukagu Araban, eta azken lau urteotan oso lan ona egiten dabil.

Aurtengo txapelduna, zein?

Finalera beti betikoak ailegatzeko dira gazte berriren bat edo beste agertu arren: Oihane Perak egun ona badu saio polita egin dezake, Zigor Enbeitak gorabehera asko izaten ditu, eta Ota-mendi, noski, azken txapelduna. Horien artean egongo da txapela.

Antzerkia protagonista Kurtzebarri eskolan

M.A

Astelehenean, otsailak 28, hasi eta eguaztenera bitartean Antzerki Astea egingo dute Kurtzebarri eskolan. Lehen Hezkuntzako ikasleek, 6tik 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoek, gelan landutako antzezlanak eskainiko dizkiete ikaskideei lehenengo eta gurasoei gero.

Aspaldi hasi ziren Kurtzebarri eskolan Antzerki Astea antolatzen, eta, antzerkiak haurren hezkuntzan duen garrantziaz ohartuta, urtero antolatu izan dute. Lehen Hezkuntzako ikasleek, hau da, 6 eta 12 urte bitarteko ume eta gazteek hartzen dute parte, eta landutakoa ikaskideei eta gurasoei erakusten diete.

ANTZERKIA BAKARRIK EZ

Rosa Urreta irakaslearen esanetan, plastika eta hizkuntza tailerak lantzen dituzte ikasturtean zehar umeek, eta bukaeran aipa-

tutako emanaldiak antolatzen dituzte. Antzerkiaren gain, txotxongilo emanaldiak eta euskal abesti eta dantzen erakustaldiak egingo dizkiete Kurtzebarri eskolako areto nagusira hurreratzeko direnei.

Astelehenean, otsailak 28, bertso saioa, *Edurne Zuri* txotxongiloa, *Gazi-gozoak* gezamin antzezlan eta *Baztango zortzikoa* dantza eskainiko dute. Martitzenean, martxoak 1, *Ketebi herria* txotxongiloa, *Musika desagertzearen misterioa* antzezlan eta euskal abestiak abestuko dituzte. Power Point programaren bitartez sortutako animazioen erakustaldia ere egingo dute. Bukatzeko, martxoaren 2an, eguaztana, *Lau anai-arreba ausartak* antzezlan, *Sorginen irrintzia* eta euskal dantzak eskainiko dizkiete ikusleei.

Ikaskideendako egingo dituzten saioak 15:00etan izango dira, eta gurasoendakoak 18:00etan.



Epaiaketa fartsa salatzeko kale bilkura

Joan zen egunean, otsailak 17, kontzentrazioa egin zuten, euskal gazteriaren aurka Madrilen egiten dabilzan epaiaketa fartsa salatzeko. Hainbat herritar elkartu ziren *Eskubide zibil eta politikoaren defentsan gazteria aurrera!* zioen pankartaren atzean. Atzo, bestalde, Arrasaten eta Bergaran egin zituzten kale bilkurak, 18/98+ plataformak deituta. Horrez gainera, bihar Bilbon egingo den manifestaziorako dei egin dute. /M.A.

MARI KARMEN

ZAPATA-KONPONKETA DENDA
Errekabarren 22, Tel.: 943 79 59 85

Beherapenak!
Botak 35eurotik aurrera!

% 50erainoko deskontuak
bota gehienetan!



Ez galdu aukera!

Lie

**LURRINGEGIA
OPARI DENDA**

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Martin
erloju-denda

*Bere bezeroen
zerbitzura*

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

FUTBOLA

Felix Recio soraluzetarrari eman diote preferenteko taldearen ardura

Orain arte ohorezko mailako gazteak entrenatzen ibili da

M.A.

Joan zen astean eta uste barik preferente taldeko entrenatzailea aldatzea erabaki zuen UDAko zuzendaritzak. Neka Galanen ordean Felix Recio jarri du denboraldia bukatu bitartean; orain arte ohorezko mailako gazteak entrenatzen ibili den soraluzetarra.

Real Union taldearekin 1-5 galdu ostean erabaki zuen UDAko zuzendaritzak entrenatzailea aldatzea. Jokin Antxia presidentearen esanetan, gainera, giroa zakartzen hasita zegoen.

ALDAKETA BEHARREAN

Ondo ezagutzen du Felix Recio futbolaren mundua, izan ere, talde askotan egon da. Soriako Numantzia, Mendaron, Soraluze eta joan zen astea Aretxabaletako ohorezko mailako taldea entrenatzen ibili zen.

Preferenteko taldeak jokatu dituen ia partidu guztiak ikusi ditu Felixek, eta azken partiduetan gogo barik ibili direla jokariak dio: "Aldaketa baten behar



MIRARI ALTUBE

Denboraldia bukatu bitartean Felix Recio izango da preferenteko entrenatzailea.

rrean ikusi ditut; eta ez dut uste futbol kontua izan denik arazoa giro kontua baizik". Hala ere bigarren entrenatzaileak, Xabier Zangitu bergararrak jarraitu egingo du bere postuan.

Domekan partidu zaila jokatu zuten oñatiarren aurka, eta galdu egin zuten 2-0. "Nik konfian-

tza osoa daukat taldearengan, eta maila mantentzea da gure helburua zalantza barik. Lehenengo partidua gura nuen ikustea mutilak zela dauden baloratze, eta gero etorriko dira emaitzak" dio Felixek. Domekan Zestoako taldea izango dute aurrez aurre Ibarra futbol zelaietan.

FOTOKIROLA



Euskalduna-Arizmendi UDA Bigarren mailako kadeteak, Domeka, 11:30. Andoain.

Eguraldi eskasa izan zuten eski irteeran

Joan zen aste bukaeran, otsailaren 19an eta 20an, 60 lagun joan ziren Luz Ardiden aldean eskiatzeko asmoarekin. Murruxio MEK antolatutako irteera izan zen, baina ez zuten eguraldia lagun izan. Zapatuan elurretan ibili ziren, baina domekarako eguraldiak txarrera egin zuen eta eskiatzeko ez zela girorik ikusita sagardotegira joatea erabaki zuten. Hori bai, giro bikaina izan zuten irteera osoan. /M.A.

XAKEA

Arlutz Xake Taldeak irabazi zuen Arrasateko San Andres Taldearen aurkako derbia

Derbi garrantzitsua jokatu zuten joan zen zapatuan Arrasateko San Andres taldeak eta Aretxabaletako Arlutzek. Biek gura zituzten puntuak, batez ere arrasatearrek, eta Arlutzekoek irabazi zuten partida 1 eta erdi, 2 eta erdi. Zortea izan zutela lagun, esan zuen Aitor Alcaide Arlutzeko jokariak. Hala, denboraldia bukatzeko hiru partida falta zaizkiela, bosgarren postuan dago Arlutz Xake Taldea. Hala ere, Aitor Alcaideren esanetan, "talde gogorrek dira guztiak ere, eta ahal ditugun puntuak lortzen saiatu behar gara". Bihar, zapatua, Iruñako Orvina taldea izango dute aurrez aurre; Aretxabaletan jokatu dute partida, 16:00etan.

PILOTA

Partidu guztiak irabazi zituzten joan zen astean Aretxabaletako sei pilotariak

Udaberri Pilota Txapelketa aurrera doa, eta herriko pilotariak gero eta hobeto dabilta. Asko kosta zaie partiduak irabazten hasia, baina orain martxa polita hartu dute. Horrela bada, joan zen aste bukaeran jokatuako partidu guztiak irabazi zituzten: Errasti anaiek azpeitiarren aurka 22-9, Lasagabaster/Alzolak Usurbilgo bikotearen aurka 15-22, eta Oion/Uriartek antzuolarren aurka 22-13. Bihar, zapatua, partidu bakarra jokatu dute Iturrigorri frontoian Lasagaster/Alzola bikoteak hain zuzen Hernaniko bikotearen aurka. 18:00etan izango da partidua.

IGERIKETA

Igerian ikasi gura duten umeek martxoko ikastaroetarako eman dezakete izena

Orain hilabete inguru eskaini zuten igeriketa ikastaroa Udaleko Kirol zerbitzuek, eta erantzun ona eman zioten herriko umeek. 1998 eta 2001 urte bitartean jaiotako umeendako zen, eta hiru talde sortu ziren: bi astean zehar ibili dira, eta hirugarrena aste bukatuaren esane kasu eginda. Aste honetan, baina, bukatu egingo dituzte eskolok, eta datorren astean martxokoak hasiko dituzte. Jarraitu gura dutenek edo lehen ibili ez direnek orain daukate aukera, kirol etxera deitu (943 71 26 28) eta izena eman besterik ez da egin behar. Taldea sortzeko gutxienez bost ume gura dituzte.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Aloña-Zestoa
Preferentea.

Domeka, 16:30. Ibarra.
Euskalduna-Arizmendi/UDA
Bigarren mailako kadeteak.
Domeka, 11:30. Andoain.

PILOTA

Aretxab.-Hernani
Lehen mailako nagusiak.
Zapatua, 18:00. Iturrigorri.
Eibar-Aretxab.
Bigarren mailako nagusiak.
Zapatua, 11:00. Eibar.

EMAITZAK

FUTBOLA

Aloña Mendi 2 UDA 0
Preferentea.

UDA 1 Santo Tomas 0
Gazteen ohorezko liga.
Soraluze 1 UDA/Arizmendi 2
Lehen mailako gazteak.
UDA/Arizmendi 3 Mutriku 2
Lehen mailako kadeteak.
UDA/Arizmendi 0 Añorga 3
Bigarren mailako kadeteak.
Reala 5 UDA/Arizmendi 1
Infantil ohorezko maila.
Sanse 0 UDA/Arizmendi 2
Infantil txiki.

Intxaurdi 4 Almen/UDA 1
Emakumeen liga.

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa
Aretxab. 22-Azpeiti 9
Lehen mailako nagusiak.
Usurbil 15-Aretxab. 22
Lehen mailako nagusiak.
Aretxab. 22-Antzuola 13
Bigarren mailako seniorrak.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

TEL.: 943 79 86 21

ERRETRATUZAHARRA

Beroako langileek bapo bazkaldu zuten

Gizon koadrila ederra daukagu erretratuan. Beroa lantegiko langileak ditugu guztiak, Demetrio Iriarte eta anaia Higinio, txistulariak biak, izan ezik. Ehun urte betetzeko gutxi falta zitzaioela bota zuten Beroa lantegia, 2002ko abenduan.

Datu ofizialen arabera, 1925ean sortu zuten lantegia. Valentin Etxebarria, baina, ez zegoen ados datu horrekin, eta hala adierazi zion ARETXAGAZETARI orain dela bi urte: "Gure aita Celedonio 1926an hasi zen Beroan lanean, eta ordurako lantokiak hainbat urte zeramatzan zabalik. Horregatik, uste dut XX. mende hasieran sortutako fabrika dela". Aluminioaren laminazioan egiten zuten lan, eta Aretxabaletako eta inguruko herrietako lagun asko etortzen zen lanera Beroara. Lana eta soldata bakarrik ez, elektraindarra ere eman zien Beroak aretxabaletarrei.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Julian Olabe, Hermenegildo Galdos, Celedonio Etxebarria, Felix Ugalde, Juan



Jose Garciaetxabe, Andres Izagirre, Juanito Eraña eta Alejandro Bengoa.

Bigarren ilaran: Damaso Belategi, Juan Paulo Lizarralde, Nicolas Peña, Antonio Martinez de Agirre, Higinio Iriarte, Demetrio Iriarte, Antonio Larrañaga, Felix Iglesias, Juan Jose Izagirre eta Antonio Eraña.

Behoko ilaran, makurtuta: Jesus Belategi, Cristobal Barandiaran, ezezaguna, ezezaguna, Jose Mari Izagirre, Luis Arrue (nagusiaren semea), ezezaguna, Pedro Galdos eta Luis Galdos.

Argi dago bazkalostean ateratako erretratua dela, lagun giroan guztiak, baina ez dakigu hain argi zer ospatu

zuten. Antza denez, Andramari hirugarrenean Beroako langileek bazkaria egiteko ohitura zuten.

Argazkia: Ramon Mari Elkoro

Informazioa: Ramon Mari Elkoro eta Bernabe Makatzaga

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Industrialde parean etxebizitzak

Ez dira 20 urte pasatu baina Basabeko industrialde inguruak itxura aldaketa izan du. Beroako lantegia, LASA geroago, bota egin zuten orain dela urte bi, eta hark utzitako lekuan etxebizitzak egiten dabilta. Lehenengo fasean egindako etxeetako jabeek abenduan eman zizkieten giltzak, eta gainerakoei bukatu ahala emango dizkiete.




≈ 1988

Basabeko industrialde parean Beroa lantegia zegoen, aluminioaren laminazioan lan handia egindako lantegia.



2005

Lantegia bota ostean etxebizitzak egiten hasi ziren; 130 egingo dituzte guztira. Iralabarri plaza jarri diote izena inguru berriari.



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 25a / 199. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: S5200/99

Bizigune programaren nondik norakoak azaltzen hasteko asmoa du Udalak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Astelehenean Bizigune programaren hitzarmena sinatuko dute Eskoriatzan. Ekimenean izango da Javier Madrazo sailburua. Herrian etxebizitza hutsak dituzten jabeek informazioa emango diete; baina baita interesa duten herritar guztiei ere.

Eskoriatzan ere abian da Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Bizigune programa. Herrian hutsik dauden etxebizitzetara eman guran sartu zen Udala programa horren barruan.

Astelehenean, hilak 28, Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua herrira etorriko da. Hala, Bizigune programaren hitzarmena sinatuko dute.

Herrian etxebizitza hutsak dituzten jabeek informazioa ematen hasiko dira. Hala eman du aditzera Juan Carlos Bengoak: "Izan ere, hitzarmena sinatzeak hori dakar, Udaleko pertsona bat lan horretan hastea". Asmoa, asteen pare bat aldiz herritarrei Bizigune zertan datzan azaltzea eta, interesa dutenek, lehenbailehen etxebizitza alokairuan jartzea da.



Herrian hutsik dauden etxebizitzetara zerrenda egin du Udalak.

ZERRENDA EGINDA

Eskoriatzako Udalak duela zenbait hilabete erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak abian jarritako egitasmoan parte hartzea. Hala, dago-

eneko egina du Eskoriatzan hutsik dauden etxebizitzetara zerrenda. "Lan hori egin genuenean, pare bat interesatu agertu ziren, eta hemendik aurrera jendea animatzea espero

dugu", adierazi du Bengoak. Gainera, gogoratu du etxebizitzak egokitzeko dirua Jaurlaritzak uzten duela, eta interesik gabe itzultzeko aukera dagoela.

Eskoriatzako Udalak dagoeneko egina du herrian hutsik dauden etxebizitzetara zerrenda

Javier Madrazo sailburua etorriko da astelehenean Biziguneko hitzarmena sinatzera

Hitzarmenak dakar herritarrei informazioa emango dien pertsona kontratatzea



Txapela buruan... eta ibili munduan!

Argazkiko lagun taldea Londresen izan zen otsailaren 12an eta 13an. Izan ere, euren Agustín Zugasti laguna datorren astean ezkonduko da, eta haren ezkon aurreko jaia egitera joan ziren. Ederto igaro zuten bertan hiriko hainbat toki ezagutu; esaterako, Buckingham jauregia. Oraindik, baina, ez dute ospakizunekin amaitu, asteburu honetan sagardotegira doaz eta Agustín eta haren lagunak eta baita Larrantz Herrero eta bere adiskideak ere. Ondo igaro bertan! /Z.V.M.

LABUR

Amuskak afaria antolatu du martxoaren 12rako

Amuska emakume taldeak afaria antolatu du martxoaren 12rako. Gure Ametsa jatetxean elkartuko dira. Bazkideek 33 euro eta gainerakoek 40 euro ordaindu beharko dute.

Otsailaren 28an eta martxoaren 1ean eman beharko dute izena interesatuek. Prezio horren barne, autobusa, afaria eta afalosteko jaia daukela eman dute aditzera Amuskako kideek. Izena emateko aukera, beraz, astelehen eta martitzenean.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

IPUIN KONTAKETA
Gaur egubakoitza, Madrilgo Totamka taldearen eskutik. 22:30ean Unibertsitatean. *Cuando la voz despierta* ikuskizuna eskainiko dute.

GURASO ESKOLA
Guraso Eskolan parte hartu gura dutenek otsailaren 28a baino lehen izena eman beharko dute kultura etxean edota udaletxean. 10 eurokoa da matrikula.

ARETO FUTBOLA
Euskal ligako areto futboleko norgehiagoka. Bihar, zapatua, 18:00etan kiroldegian. Eskoriatza KE Gernikako Areto Futbol KTren kontra neurtuko da.

KZGUNEA MARTXOAN
Datorren egubakoitzean, martxoak 4, *Ardoa ezagutu* ikastaroa eskainiko dute 09:00etatik 11:00etara bitartean. Ardoari buruzko informazioa sarean bilatzen ikasteko aukera.
Martxoaren 11n, *Itsasoan murgil zaitetz* ikastaroa emango dute. Eta martxoaren 18an *Zure aseguruak kontratatatu* ikastaroa. Guztiak, goizean izango dira.

AXTROKIRENAGENDA

2004KO KUOTA
Axtrokiko bazkideek 2004ko bigarren seihilekoko kuota ordaindu beharko dute otsailean. Hala eman du aditzera kultura elkarteak. Argibide gehiagorako, deitu 943 71 54 34 telefonora.

HIRIGINTZA BATZORDEAK ASTELEHENEAN ONARTU ZITUEN ALDAKETAK

Auzoko bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, aldaketak Santa Ana proiektuari

Z.V.M.

Astelehenean elkartu zen Hirigintza batzordea eta Santa Ana izan zuen mintzagai. Proiektuari hainbat aldaketa egitea onartu zuen batzordeak bilera hartan. Guztira bost dira proiektuan egin dituzten aldaketak, eta bizi-kalitatea hobetzeko xedea dute.

Astelehenean, otsailak 21, Eskoriatzako Udaleko Hirigintza batzordea Santa Ana urbanizazio proiektuari buruz mintzatu zen egindako bilkuran. Bilera hartan, proiektuari zenbait aldaketa egitea adostu zuen batzordeak. Josu Ezkurdiak eta Jabier Zugastik aurkeztu zuten proposamena.

Guztira bost puntu onartu zituen Hirigintza batzordeak. Santa Ana auzoko sarreran biribilgune bat egitea aurreikusten zuten hasiera batean. Hori aldatu egin dute, eta, "aldaketa horrekin, bizikletak aparkatzeko toki handiagoa sortuko da", argudiatu dute batzordekideek. Biribilgunearen ordez, beraz, bizikletak

uzteko tokia egitea adostu zuten astelehenean.

Bestalde, osasun etxea zegoen tokian ludoteka eta bake epaitegia jartzeko asmoa du Udalak. Toki horretan bi aparkaleku gutxiago egiteko asmoa berretsi zuten asteleheneko bileran; hala, segurtasuna bermatu gura dute. Gainera, auzoan zenbait zebra-bide jarriko dituzte proposamenaren arabera eta Akeita kafetegi pareko espaloia zabaltzeko asmoa erakutsi zuten. Horiek dira proposatutako aldaketak.

Lan horiek nork egingo dituen erabakitzeke dago oraindik. "Lehiaketa bidez aukeratuko da zein enpresak egingo dituen Santa Anako lanak", eman dute aditzera udaletxetik.

Bost aldaketa egitea adostu zuen astelehenean Hirigintza Batzordeak

Madrilgo Totamka taldeak 'Cuando la voz despierta' eskainiko du Unibertsitatean

Z.V.M.

Gaur, Madrilidik etorritako Totamka taldeak ipuin kontaketa eskainiko du Unibertsitatean. Cuando la voz despierta deituriko ikuskizunak hitzez gain musika ere eskaintzen du. Hitzen balioari buruzko gogoeta egiteko aukera gauean.

Gaur gauean herrian arituko da Totamka talde madrildarra. Bi kide dituen antzerki taldea da. Alicia Moreno eta Roberto Mezquita dira eta herrira etorriko dira gaur euren emanaldia eskaintzera.

Unibertsitatean izango da eta 22:30ean hasiko da. Nagusientzako ipuinak kontatuko dituzte ber-

tan. *Cuando la voz despierta* deitzen den ikuskizuna ekarriko dute herrira Totamkako lagunek. "Ipuin arabiarak, gaur egungoak... izango dira gauean Eskoriatzaren entzungai", eman du aditzera Robertok. "Hitzen balioari buruzko gogoeta dela esan daiteke. Gainera, ahotsik ez dutenei ahotsa ematea eta ikus-entzuleei

gogoeta egitera bultzatzea da gure asmoa", gaineratu du.

HITZAK ETA MUSIKA

Roberto eta Alicia dira taldeko kideak. Oraingoan, baina, Jesus lagunarekin datoz. Hark gitarra joko du, eta, hala, musika jarriko diote ikuskizunari.

Roberto Barakaldokoa den arren aspalditik bizi da Madrilan. Espainiako Estatuan eskaini ditu Mezkitak emanaldi gehienak. Horregatik, gaztelaniaz egin ditu lan guztiak: "Oraindik ez dut euskarazko lanik egin. Hala ere, etorkizunean umeentzako euskarazko ikuskizuna egin gura nuke", azaldu du Robertok; "ilusioa egingo lidake horrek", gaineratu du.

Ahotsik ez dutenei ahotsa eman eta ikus-entzuleek gogoeta egiteko ipuinak entzungai

LABUR

Eskiatzera joateko irteera antolatu du Mendi Sailak

Eskoriatzako Mendi Sailak martxoko lehen astebururako irteera antolatu du Luz Ardienera, Frantziara. Eskiatzera joango dira, eta Namaste dendan eman beharko dute interesatuek izena datorren eguna, martxoaren 3a, baino lehen.

Prezio bat baino gehiago ditu asteburuko irteerak. Materiala eramanez gero 90 euro ordaindu behar dira. Materiala eramanez gero 96 euro. Materiala eta aseguruak alokatu behar izanez gero 110 euro ordaindu behar dira, eta snowboard egiteko asmoa edukiz gero, 125 euro.

Antolatzaileek aditzera eman dute prezio guztien barne dagoela pentsio erdiko hotel batean ostatu hartzea.

Baietza nagusitu zen abstentzio handia eman arren

Jende asko geratu zen kultura etxera joan barik domekan. Hilaren 20ko erreferendumean %66,6ko abstentzioa eman zen Eskoriatzako; 2.167 pertsona ez ziren bozkatzera joan.

Bozkatu zutenen artean %50,7ak baietza eman zion Europako Konstituzioari, 558 botorekin. Ezetzak bozkatu zutenen %45,7a lortu zuen, 503 botorekin. %3a lortu zuen, bestalde, boto zuriak; guztira 33 zenbatu zituzten.

Ez zen oso alde handia egon emaitzen artean. Baietzakoa irten zen, hala ere, herrian. Ibarrean bederatzita herritatik bitan irten zen baietzakoa, Eskoriatzako eta Arrasaten.



Olentzeroren berri ekarri du elurrak

Elurra itzuli da eta horrek Gabon giroa gogora ekarri dio Eskoriatzako lagun bati. Izan ere, gure ezusterako Olentzeroren berri izan dugu aste honetan ZEBARRIn.

Olentzero Mendiola aldean harrapatu zuen lagun hark argazki kamerarekin; opariak banatzen ari zen ikazkina. Zaurituta egoteak ez zion eragotzi inguru horietan dituen lagun-minak bisitatzera joatea. Astoa izan zuen lagun bere asmoa betetzeko, eta askok eskertu zioten bisita Olentzerori. /Z.V.M.

Internetarako loturarekin zenbait arazo izan dituzte otsailean herriko KZ Gunean

Z.V.M.

Arazoak dituzte herriko KZ Gunean Interneteko konexioarekin. Hala ere, bi ikastaro antolatu dituzte datozen asteotarako. Horietan parte hartzeaz gain, irakasleak herritar guztiak animatu gura ditu egoitzara hurbildu eta nabigatzen ikas dezaten.

Leintz Gatzagako KZ Gunean irakasle lanetan dihardu Aitor Madridek, eta hilabete honetarako bi ikastaro antolatu zituen herrian. Hala ere, ezin izan ditu eskolak eman, herriko KZ Gunean izandako zenbait arazorengatik. "Internetarako konexiorik ez da egon otsailean zehar", eman du aditzera ikastaroen arduradunak.

"Sarbidia ahalbidetzen duen enpresak, Telefonicak, sortu du arazoa. Haiekin berba egin eta laster dena bere onera itzuliko dela eman didate aditzera", gaineratu du Madridek.

IKASTARO BERRIAK

Astelehenean, hilak 28, *Asteburu bat Euskal Herrian* ikastaroan parte hartzeko aukera izango dute gatzagarrek; martxoaren 14an, berriz, *Euskal Herriko nekazal mundua* ikastaroan. Biak 09:00etatik 11:00etara izango diren arren, KZgunea 13:00ak arte irekiko dute la eman du aditzera Aitorrek. "Gatzagarrek KZ Gunea etortzera gonbidatu gura ditut. Jakin-min eta pazientzia apur bat besterik ez da behar Interneten nabigatzen ikasteko", gaineratu du.

'Interneten nabigatzen ikasteko jakin-min eta pazientzia apur bat behar da'

'Herritarrek KZ Gunea gerturatu eta ikastaroetan parte hartzera animatu gura ditut'

Korrika eta Kilometroak jaiei buruzko bilerak egin dituzte

Bilera bat baino gehiago egin dituzte aste honetan Leintz Gatzagan. Lehenengoa astelehenean izan zen, eta Korrika 14 ekimena izan zuten ahotan. Hainbat elkarre eta erakundetako pertsonak hartu behar zuten parte bertan. Baina elurrarengatik bi pertsona bakarrik iritsi ziren herrira. Korrika herritik igarotzen den egunean ekitaldiaren bat antolatu gura dute. Baina jende gutxi esku hartu zuenez bileran, oraindik ez dute erabaki zer antolatu.

KILOMETROAK 2005

Martitzenean, berriz, Kilometroak 2005 izan zuten mintzagai Leintz Gatzagan. Euskararen jaia ibarrean ospatzen denez, herrian

ere ekimenean bat antolatzea pentsatu zuten martitzenean. "Kilometroak aitzakia hartuta, zenbait antolatu gura dugu; plateritiroko saioak, esaterako", gaineratu du Jon Sasiainek.

ARAZOAK ERREPIDEAN

Arazoak eragin ditu aste honetako elurteak Gatzagako errepidean. Izan ere, bidea itxi egin dute, eta herriko traktorea lanean aritu da baserrietako bideak garbitzen. "Astelehenean, esaterako, ez genuen horretarako beharrik ikusi", eman du aditzera Jon Sasiain Udaleko kideak. "Hala ere, martitzenetik aurrera bai, lanean aritu dira bide horiek garbitzen", gaineratu du.



Garro jauregian dago Leintz Gatzagako KZ Gunearen egoitza.

ARTXIBOA

LABUR

Abstentzio handia erreferendumean

Ez zen jende askorik animatu Europako Konstituzioari buruzko erreferendumean bozkatzera. Izan ere, datuen arabera biztanleen %68,6 ez zen herri eskolara gerturatu domekan.

Egunaren amaieran boto kontaketa egin, eta hala geratu ziren emaitzak Leintz Gatzagan: 11 baiezko, 53 ezezko eta lau zuri zenbatu zituzten.

1976. urtean ere bozkatu zuten orduko erreferendumean. Orduan, 72 baiezko, bost ezezko eta zazpi zuri zenbatu zituzten. Orduan, biztanleen %54,54 joan zen bozkatzera.

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak David Fernandez artisau gatzagarra saritu du

Leintz Gatzagako David Fernandez bizilagunak saria jaso du. Gipuzkoako Merkataritza Ganberak eman dio saria, bere jardueran buru-belarri aritzen delako.

Izan ere, larrua lantzen du Davidek. Poltsak eta diruzorroak egiten ditu, esaterako. Bere lanak saltzeko herrian denda txiki bat du saridunak.

SARIAREN HELBURUA

Gipuzkoako Ganbera 1991. urtean hasi zen sari hori ematen. Probintziako kultura eta ekonomia ohiturak zaintzen

dituzten artisauen lanak sartzien ditu ordutik hona. Hamahiru urte hauetan 63 gipuzkoarrek jaso dute merezitako omenaldia.

Oraingoan gatzagarren txanda izan da. Ez da, baina, 2005eko saridun bakarra izan. Berarekin batera Azkoitia, Tolosa eta Bergarako artisau banari eman diote saria.

Ganberako zuzendari nagusi Felix Iraolak eta Berrikuntza Foru Saileko zuzendari Angel Irastortza izan ziren sariak banatzen aritu zirenak.

SALON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

**TOKI
ALAI
TABERNA**
Karajiloetan
espezializatua
Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

**NAIRA
Taberna**
Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

LENIZ, C.B. KONPONKETAK
LENIZ
ESKORIATZA
TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
SUZUKI
Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

“Giharra indartzeko ez da itxaron behar; zailagoa da min hartutakoan sendatzea”

Aretxabaletako errehabilitazio zentro bakarra da Ekin. Andoni Ormazabal urretxuarrak eta Zuhaitz Arantzadi zumarragarrik zabaldu zuten orain dela lau urte, eta haziz joan da ordutik hona. Oso gustura daude gure artean, eta dagoeneko herriko txutxu-mutxu gehienak ezagutzen dituzte.

Orain dela lau urte zabaldu zenuten errehabilitazio zentroa...

Hala da; aurretik han eta hemen ibili ginen lanean, baina gustura sekula ere ez. Hortaz, geure zentroa zabaltzea erabaki genuen, eta Aretxabaleta aukeratu. Gero, haziz joan gara beharren arabera eta gure lan egiteko teoriaren arabera. Hori horrela, orain beste hiru lagun daude: Maite Madina, Xabier Gabilondo eta Garikoitz Barbero. Horiez gain, podologoak etortzen da egun batzuetan.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Ekin errehabilitazio zentroa bi zatitan banatuta daukagu: batetik, errehabilitazioari dago-kion zatia dago. Bai seguruaren bitartez bai partikular datozenei eskaintzen diegun zerbitzua; bestetik, masajeak ditugu. Terapeutikoa, kirol masajea eta lasaitzeko masajea. Azken horiek medikuarengana joan barik etori ohi dira, bizkarreko edo gerriko mina dutelako edo zaintiraturen bat izan dutelako.

Errehabilitazioari dagokionez medikuaren agindua beharrezkoa da?

Ez; normalean hala izaten da segurua egoten delako tarteko, eta seguruak traumatologoaren agindua behar duelako, baina ez dauka zertan. Medikuegandik pasatu gabe galdetza datorrenari zer daukan begiratzeko diogu, zein tratamendu beharko lukeen esaten diogu eta plan bat egin. Izan daiteke, adibidez, aspaldi izandako bihurritu baten erruz orkatilak minduta izatea eskiatzera joatean, eta indartu gura izatea. Horretarako errehabilitazioa beharko luke, eta ez masaje bat.

Hortaz, lehenengo aldiz datorrenean norbait begiratu egiten diozue?

Bai, horixe; nahiz eta medikuaren txostena irakurri guk geure miaketa egiten diogu lesioarekin datorrenari. Seguruaren bitartez datorrenari mekanikoki ezartzen diote diagnostikoa: lunbalgia edo belaunetako mina, adibidez. Mina duenari ze eratako errehabilitazioa behar duen esan beharko lioke traumatologoak, baina ez da hala izaten. Hortaz, geuk egiten dugu miaketa eta zer behar duen ezarri.

Lesioak sendatzen saiatzen zarete zuek, baina lesioa izan aurretik prebenitzeko edo haiek saihesteko modurik badago?

Bai, Euskal Herrian ez daukagu halako ohi-turarik, izan ere, min hartu ostean joaten gara sendatzera. Frantzia eta Belgika aldean, oste-



Maider Madina, Andoni Ormazabal, Zuhaitz Arantzadi, Xabier Gabilondo.

“Geure miaketa egiten diogu lesioarekin datorrenari, eta zer behar duen ezarri”

“Lepoko minak, giharretako gainkargak eta tendinitisak izaten dira ohikoenak, baita zaintiratuak ere”



Ekin fisioterapia zentroa.

ra, prebentzioak askoz indar handiagoa dauka. Orain hasi gara poliki-poliki horretaz konturatzen; izan ere, oso ezberdina da hilabete eta erdian behin masajea hartzera etortzea lepoko minik ez izateko edo tortikolisarekin etortzea eta sendatzeko lau saio egin behar hila-betean. Zona honetan, gainera, bizi intentsitate oso handia daukatzue, eta ikusten dugu lesio berberak behin eta berriz mintzen zaizkizuela. Hortaz, bizi mailari eusteko ezinbestekoa da prebentzioa. Duda barik, lesio bat ez dagoenean indartzea askoz samurragoa da lesioa sendatzea baino.

Zein lesio sendatzen dituzue gehien?

Lepoko minak, giharretako gainkargak eta tendinitisak oso ohikoak dira; tendinitisak bai sorbaldan, bai ukalondoetan. Lehen esandako moduan, inguru honetan daukazuen bizi intentsitatearen erruz dira lesio horietako asko, eta industriako lanaren erruz. Bestalde, zaintiratuak sendatzera ere gero eta gehiago datoz; izan ere, orain, hesgailu edo bendaje funtzionalak jarrita hurrengo egunean oinez ibil daiteke hankan min hartu duena.

Kirolariak ere sarri etorriko dira, ez?

Bai, kirola egiten min hartutako asko datoz. Zuhaitzek, gainera, oso gustuko du kirolari dagokion errehabilitazioa, eta lan asko egiten du horretan. Aste bukaeretan, esaterako, Realeko oinarriko futbol taldeetako mutikoekin egiten du lan, fisioterapeuta.

Eta zer-nolako bezeroak dituzue?

Era guztietakoak. Egia da Copreciren eragina igartzen dugula; izan ere, emakume asko dator, 50 eta 60 urte inguruko emakumeak, eta normala da patologiaren bat izatea adin horretan. Baina gizonezkoak eta gazteak ere baditugu. Batzuk harritu egiten dira gazteak ikusita, baina normala da. Lehen, mina zeukana ohi egiten zen min horrekin bizi izatera; orain, ostera, tratatzeko aukera dauka eta aprobetxatu egiten du.

Aurrera begira lokala handitzeko asmotan zaudete. Ez da hala?

Bai, baina ez bezero gehiago hartzeko. Argi utzi gura dugu gure lan egiteko filosofia gatik dela, kalitatea ematea, hain zuzen.

Lokala txiki geratu zaigu; hortaz, handitu egingo dugu hona datorren jendea erosoago hartzeko, gustura egon dadin, baina lehenengo bostok jarraituko dugu lanean.

Berrikuntzarik egongo da?

Beste leku batzuetan hidroterapia indar handia hartzen dabil. Gure asmoa hor sartzea da, ez La Perlarren tamainan noski, baina bai bainuak edo ur-zurrustak probatu gura duenak zer-baitzateko adina. Hidroterapia lasaigarri moduan edo sendatzeko tratamendu moduan izan daiteke. Herritarrek ez lukete Donostia edo Zestoraino joan beharrik izango.

Jari zaitez profesional espezializatuen esku.

Zure osasuna gure ardura da.

ekin
fisioterapia zentroa

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE ZENTROA

ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA

Partikularrekin eta seguru etxeekin lan egiten dugu:
(Lagun Aro, Adeslas, Sanitas, Mapfre, etab.)

Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Telf.: 943 79 95 64 • Gipuzkoa



DEBARRI

Juan Carlos Bengoa, Eskoriatzako alkatearekin berbetan

Martitzenean, martxoaren 1ean
21:00etan

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea

Parte hartzeko telefonoa:
943 71 23 93



Ikustekoa!

DEBARRI / Babeslea:

